

Ezkabatik ihes egin zuen preso baten gorpuzkiak identifikatu dituzte

Nafarroako Gobernuak sortutako DNA bankuari esker atzeman dituzte Leoncio de la Fuentearen gorpuzkiak • Larrasoañan exekutatu zuten

Ainhoa Larretxea Agirre

Nafarroako Gobernuak Ezkaban preso egon ziren eta Larrasoañan (Nafarroa) exekutatu zituzten lau pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu zituen 2018ko uztailan. Paulina Lizoainen testigantzari esker jakin zuen Nafarroako Gobernuak han izandako exekuzioen berri. 89 urteko herritar horrek haurra zela ikusi zuen lau lagun hilketan, eta Nafarroako Gobernuak Esteribarren hobitik ateratzeko lan batzuk egin ondoren erabaki zuen ikusitakoa konstatzea.

Leoncio de la Fuente Ramosen gorpuzkiak identifikatu dituzte orain gorpuzki horien artean, haren alabak Nafarroako DNA bankuan utzitako lagin bati esker. Valladolideko Fresno El Viejo (Espainia) herrikoa zen De la Fuente Ramos, eta sei seme-alaba zituen. 1937ko abuztuaren 22an iritsi zen Ezkabako espetxera, 36 urte zituela. 1938ko maiatzaren 22an kartzela horretatik egindako talde ihesean parte hartu zuten 795



Aranzadikoak Ezkabako gorpuzkiak aztertzen, 2018an. IDOIA ZABALETA / FOKU

presoetako bat izan zen. Ihes egin eta berehala harrapatu zuten, berte 206 presorekin batera, eta Larrasoañan exekutatu eta hoberatu zuten.

Nafarroako Gobernuak 2016an sortu zuen DNA bankua, eta hantxe dituzte jasoak Nafarroan fusilatutako 230 pertsonaren senitatekoen DNA laginak. Horri esker lortu dute identifikatzea Larrasoañan fusilatutako preso. Gaine-

ra, aurretiazko hipotesirik egin gabe identifikatu dituzten lehenengo gorpuzkiak dira De la Fuente Ramosenak.

Deia senideei

Nafarroako Memoriaren Institutuak deia egin die fusilatuen senitatekoen beren laginak utz ditzaten, halako identifikazio gehiago egin ahal izateko. Orain arteko lana eskertu du gobernuak.